



# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

13.zk 2019 • 5€



# Barruko ibilbideak

 Txelu Angoitia

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.











## ALEX DIAZ

“La bodeguilla”, Matiena

Kantoi maitagarria, Matiena zatitxo bat.  
Zirenen, etorritakoen, garenon, datozenen eta  
pasatzen direnen topalekua.  
Belaunaldien arteko barriketa: zer jan, zer edan,  
tristurak eta alegrentziak astintzeko aukera.  
Egunerokotasunaren aterpe sakratua.







## OIHANA AZKORBEBEITIA

### Guenzelai

**Neskatotxo**a nintzela, aita-amek Guenzelairako bidea erakutsi zidaten, eta, harrezkero, txakurrak hartu eta makina bat bider etorri gara etxekook bakezko leku magiko honetara Mendiolako Kamiñoko baserritik. Koskortu nintzenean, bakarrik etortzen hasi nintzen, baina orduan ere txakurrak lagun hartuta. Pago gerri zabal eder baten altzoan jesarri eta haren babesean denbora geratu egiten da gure mendietako haitz isil, sendo eta dotoreari begira.





# IÑIGO AGIRRE

## Elorrioko plaza

**Herriko bihotza.**

**Elizea, udaletxea, pelota jolaslekua, autobusen geltokia...**

**Benardiño eta Bedrinesen tabernak.**

**Tribuli eta "Ultramarinos Finos Casa Cea"ren janari dendak.**

**Antonion zapaterixia eta Cigarán erlojularia.**

**Dantza lekua eta gramolia: Luzio eta Lauri aguazillak.**

**Udaletxepean txistulari eta musikariak.**

**Eleizpetik, gazteen gurasoak seme-alabaren dantzak zaintzen.**

**Eleizpeko tonbolak eta txorro-morro jolasak.**

**Plazatik herria banatzen zan: goitarrak eta betarrak.**







Nazioarteko  
Irudiaraztopaketaren  
profesionala

Enpresen arteko  
irudiaraztopaketaren  
profesionala

Irudi/ka





# IRATI EGUREN ARRUTI

Bidegurutzea. Zeharkale  
eta Artekale. Durango

Txikitan, musika eta pintura klaseak.  
Gaur egun, liburu eta kultura usaia.

A photograph of a traditional stone building with a red-tiled roof, situated in a mountainous landscape. The building has several windows and a chimney. In the background, there is a large, rocky mountain peak under a blue sky with some clouds. The foreground shows a dirt path and some greenery.

# JESUS EGUZKITZA

## "EGUZKI"

### Anboto

**Arrazolako ikusaldetik, Anboto da nire bizi-poz eta ames-iturri.**

**Nortasun handiko hatx tantai tentea, Atxondoko zeruari eusten.**

**Hatxa biluzik geratu da.  
Haizea baino ez dabil isiltasuna hauspotzen.**

**Asmanako harri biziak galtzairua daroa zainetan.  
Zenbat mando amildu ete da hor, ola zaharren baterako gaiez mukurru!**

**Gerrikon antxinako siniskera zaharrek oihartzun egiten dabe gure gogoramenean.**

**Gerrikoko bidezidorrak, zeharka-meharka,  
Mari Urrikeren kobazuloraino eroango gaitu.**

**Barrura sartu aurretik, Gogo-Gurarien Uraskan edan behar da, ahuspez, eskariak egiteko.**

**Hutsune batzuk astunak dira, adurrez beterik dagozelako.**

**Mari gure Ama da, gure Lurrama, gure Amalurra.**



